

KONTZEJUPETIK

Elkartasuna Hondurasekin.

Acoes GKEaren ordezkariak udaletxean izan dira bisitan, Hondurasek bizi duen errealitatearen berri emateko.

2

Azkoitia Lagunkoia.

Herriko zortzi establezimenduk lortu dute "Lagunkoiak gara" zigilua.

12

Elkarriketa: Andrea Pozo

Silence taldeko abeslari Andrea Pozorekin solasean aritu gara.

14-15



HONDURAS

UN PAÍS EN EL QUE ESTÁ TODO POR HACER

ACOES Gobernuz Kanpoko Erakundeko ordezkariak udaletxean bisitan izan berri dira, Udalak ematen duen laguntza eskertu eta Hondurasek bizi duen errealitate gordinaren berri emateko.



Respiran. Vivir es mucho decir en un país en el que el 80% de la población pasa con menos de dos dólares al día, donde la mitad de la población no tiene empleo, donde un maestro jubilado cobra 120 euros al mes y un periodista, 75, donde el índice de analfabetismo supera el 50%...



ACOES Gobernuz Kanpoko Erakundea Hondurasko herriari laguntzeko eratu zuen Patricio aitak. Hango ume, gazte eta pertsona nagusiei laguntzen dio elkarteak. Duela egun batzuk bisitan izan da udaletxean ACOESen fundatzaile aita Patricio eta berarekin batera, aita Alvaro eta Marian Isusquiza eta Amaia Arregui boluntarioak. Azkoitiko Udalaren eskutik jasotzen duten laguntza eskertzeraz etorri dira. Besteak beste, eta gutxinaka, ikasgelak edota “erabat ahaztuta dauden” pertsona nagusientzat apartamentuak eraikitzeko bideratzen dituzte laguntzak.

“El Salvador, Nikaragua edo Guatemala entzuten diren bezala, Honduras ez da aipatu ere egiten eta bake

Vivir es mucho decir en un país en el que cada año 200 hondureñas son asesinadas a manos de sus maridos o compañeros.

Vivir es mucho decir en un país que resulta ser el más violento del mundo junto con Haití en tiempos de paz.

Vivir es mucho decir en un país en el que está todo por hacer.

garaian, Haiti eta Honduras dira herrialderik biolentoenak”. “Biztanleriaren %60-70 erabat marjinatuta bizi da. %20 inguru apur bat hobetoxeago eta gainontzekoak oso aberatsak dira. Dena egiteko dago”.

ACOES egiten ari den lanari esker, hango 700 gazte inguru hezkuntza esparruan lanean ari dira eta 10.500 ume inguru dituzte Euskal Herritik, estatutik, Frantziatik edo Kanadatik jasotzen duten laguntzari esker.

Aldaketarik, eboluziorik ez da somatzen. “Baina poz ikaragarria ematen du umeak irakurtzen eta idazten ikasten ari direla ikusteak, bere motxilatxoarekin, hemengoan antzera ikusteak...”.

Javier Zubizarreta



Azkoitiko alkatea

MINTZALAGUNOI

“Guk hizkuntza asko ditugu, baina euskarak gu bakarrik gauzka”. Horixe da egia bakarra.

Eta egiak ez du buelta handirik behar.

Zorionak eta eskerrik asko bidelagun eta bidelarioi.

Batzuoi euskara erakutsiz egiten ari zareten ekarpenagatik eta besteoi, euskara jatorrizko hizkuntza izan gabe, euskarara hurbildu zaretelako lau haizetara zabalteko desioz.

Jakizue euskarari esker, euskaldun berriok mundu berri bat ezagutuko duzuela eta mundu horretako atea zabaltzen ari zaizkizuela. Zabaldu besoak eta murgildu zaitetzte. Modu asko daude komunikatzeko baina euskaraz esaten denak hurbildu egiten gaitu, batu egiten gaitu.

Ez da komunikazio soila, ezta poesia ere. Gurea den zerbait da euskara eta partekatzeak mamitu ordez, indartu egiten du.

Espero dut Mintzalagun programak zuen bizitzak aberasteko balioko duela. Euskarak lotzen zaituzte, bai, baina baita esperientziak, konpromisoak eta adiskidetasunak ere. Meritua duzue ematen ari zareten ereduagatik eta nik jarraitzera animatu nahi zaituztet.

Euskara erakustez eta ikastez gain, lan boluntarioaren adibide zarete. Gaur egun uste dugu musu-truk inork gutxi egiten duela zerbait. Zuek errealitate horren beste aurpegia zarete.

Herritarrez harro sentiarazteko beste arrazoi bat ematen didazue.

A LAS Y A LOS MINTZALAGUN

“Nosotros tenemos muchas lenguas, pero el euskera solo nos tiene a nosotros”. Esa es la verdad.

Y la verdad no necesita otra vuelta. Se vale por sí sola.

Felicidades y gracias a todos los bidelagun y bidelaris.

A unos, por toda la labor que estáis realizando enseñando el euskera y a otros, porque sin ser el euskera vuestra lengua materna, os habéis acercado a él con el propósito de hablarlo y proclamarlo a los cuatro vientos.

Sabed que gracias al euskera, todos vosotros que estáis aprendiendo, vais a descubrir un nuevo mundo al que se os están abriendo las puertas de par en par. Sumergíos. Hay muchas maneras para comunicarnos pero el euskera nos acerca, nos une.

No es solo comunicación, tampoco es poesía. El euskera es algo nuestro y compartirlo en lugar de mermarlo, lo fortalece.

Espero que el programa Mintzalagun os sirva.

Os une el euskera, sí, pero también la experiencia, el compromiso y la amistad. Tenéis mérito por el ejemplo que dais y os animo a seguir por el mismo camino.

Además de enseñar y aprender el euskera, lo vuestro es un trabajo de voluntariado. Cuando parece que nadie es capaz de mover un dedo si no es a cambio de algo, vosotros representáis la otra cara de esa realidad.

Sois una razón más para sentirme orgulloso de este pueblo.

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ



**ENTRE EL 23 DE
NOVIEMBRE
Y EL 3 DE
DICIEMBRE,
PROMUEVE
EL USO DEL
EUSKERA**

Euskaraldia propone un ejercicio simple: ¿qué te parece si durante 11 días intentamos cambiar nuestros hábitos lingüísticos y probamos a relacionarnos en euskera?

Se trata de que aquellas personas que sepan euskera se relacionen en euskera con aquellas personas que lo entiendan, y que cuando se dirijan a personas que no lo conocen, su primera palabra sea en euskera. En el

caso de las personas que lo entiendan, pedirán que se les hable en euskera.

El plazo de inscripción se abrirá a partir de septiembre.

Si eres mayor de 16 años y eres capaz de hablar o entender en euskera, puedes ser Ahobizi o Belarriprest durante 11 días, entre el 23 de noviembre y el 3 de diciembre. ¿Cuál es tu rol?

**ANDRAMAIXETAN
EUSKARALDIARI
KEINUA**

Andramaixetan ere Euskaraldia presente izango dugu. Izan ere, egitasmoari beste bultzada bat emateko xedez, VIII. Laburmetrai Lehiaketaren gaia euskara izatea erabaki da.

Euskaraldiaren olatua heldu da Azkoitira. Erronka jarrita dago: azaroaren 23tik abenduaren 3ra, guztiok *Ahobizi* edo *Belarriprest* izatea. Kontua da euskaraz hitz egiteko gaitasun handirik eduki ez arren, zerbait ulertu dezaketenekin euskaraz elkarrekin egitea ondorengo bi roletako bat hartuz:

Sedior mint maximaiorea ut eius esedign istrunt.
Vid ullenimagni nis ad ea seque parum arumqui atis

**Irailetik aurrera
zabalduko da
izen-ematea**

Eta zu, Ahobizi ala Belarriprest izango zara?



AHOBIZI

Euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko zara euskaraz.

Ezagutzen ez dituzunekin lehen hitza euskaraz egingo duzu, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai.

Ahobizi izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jarrerarekin baizik! Ahal duzun guztietan euskara erabiltzeko prest? Ahobizi zara!

Hablaré en euskera con las personas que lo entienden, aunque ellas me contesten en castellano. Y al dirigirme a quien no conozco, al menos mi primera palabra será siempre en euskera.



BELARRIPREST

Euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbitea egingo diezu. Euskara ulertzen duzula adieraziko diezu eta zurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu.

Zuk euskaraz edo erdaraz erantzungo duzu, baina zuri euskaraz egiteko eskatuko duzu.

Belarriprest izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jarrerarekin baizik! Dakienari zuri euskaraz hitz egiteko gonbitea egin nahi diozu? Belarriprest zara!

Háblame en euskera, que yo te entiendo. Independientemente de que te conteste en euskera o en castellano, quiero que me hables en euskera.

AZKOITIKO HAMAIIKAKOA

Kontxi Granado, Julene Iturbe, Patxi Larrañaga, Ainhoa Larrañaga, Luis Arregi "Izpizu", So Saito, Itziar Urteaga, Eneritz Arrieta, Juan Antonio Beneitez "Toño", Isi Sánchez, Josu Irizar eta Jon Perez dira *hamaikakoa* osatzen dutenak. Euskararen enbaxadoreak izango dira eta ekimenaren berri emanaz, herritarrek aktibatzen saiatuko dira parte hartzea arrakastatsua izan dadin.



ONDO MEREZITAKO OMENALDIA JASO DUTE MINTZALAGUNEK

Udalak eta Aek-k sustatuta, Mintzalagun programako euskaldun zaharrek, alegia bidelagunek, ondo merezitako omenaldia jaso berri dute. 27 dira omendutako bidelagunak, ekitaldira denak joaterik izan ez zuten arren.

Mintzalagun programaren zortzigarren urtea da aurtengoa. 39 lagunek osaturiko 10 taldek parte hartu dute azken edizioan. Egitasmoa abiatu zenetik 70 bat lagunek parte hartu dute programan.

Mintzalagun programari esker, astean behin biltzen dira bidelariak, euskara hobetu nahi duten euskaldun berriak, bidelagunekin, hau da, euskaldun berriei euskara maila hobetzen lagunduko dien euskaldun zaharrek.





“Gogoan dut euskaraz ez nekien garaian «belarrimotza!» esaten zidatela. Ez dakit esaten zuenak belarri luzeak ote zituen, baina astoa galanta bera. Ez ninduen euskara ikastera gehiegi animatu. Baina bertatik bertara, aurrez aurre, muturren parean galtzen nuenaz ohartuta, euskara ikasten hasi nintzen. Elkarrekin igarotako orduak aditza menperatzeko baino gehiagorako balio izan digu”.

Juanma Navarro, Mintzalagun programako bidelaria.

“Duela 25 bat urte edo, Alemaniara joan nintzen alemana ikastera eta han beste lagun batekin erdia gazteleraz eta erdia alemanez hitz egiten nuen. Nik orduan alemanez eta gazteleraz ikasi nuen. Esperientzia hura bizi eta gero, ikusi nuen zer nolako mesedea egiten zitzaien hizkuntzari eta Euskara zinegotzi nengoenen, euskara teknikariarekin batera, ideari bueltak ematen hasi ginen. Herri ezberdinetako eredua ikusi eta Mintzalagun programa martxan jartzea erabaki genuen. Beti pentsatu izan dut Txinan edo Japonian jaio izan banintz, begi txikiagoak edo handiagoak, zuria edo beltza izango nintzela, baina euskara gabe ezingo nukeela nik bizi, beraz zabaldu dezagun euskara”.

Yolanda Larrañaga, Mintzalagun programako bidelaguna.

Omendutako bidelagunak

Izaro Larrañaga
Itziar Urteaga
Esther Sudupe
Iñaki Huerta
Maitane Ansoategi
Gaizka Astigarraga
Irati Lopetegi

Juan Carlos Merino
Fernando Aranbarri
Javier Beristain
Iosu Albero
Leire Martin
Eneko Zabaleta
Miren Puertas

Maite Aierdi
Yolanda Larrañaga
Juan Ramon Alberdi
Jabier Errazu
Ixabel Jauregi
Maite Kaperotxipi
Loli Ramos

María Jesus Etxaniz
Ana Artetxe
Garbiñe Otegi
Edurne Izagirre
Nekane Usobiaga
Itziar Alberdi

ROMPIENDO ESTEREOTIPOS



Begoña Beobide

Iraurgi Berritzenen zuzendaria

“A la hora de diseñar políticas activas locales de empleo, no podemos pensar en café para todos”

Zer da Bidelan programa?

Espresuki derrigorrezko ikasketak dituzten emakumeei bideratutako programa da. Enplegua bilatzen laguntzeko orduan, gizatalde guztiekin ezin dugula ahalegin berdina egin ikusi dugu, bakoitzak bere ezauzgarriak dituelako. Ezin dugu kafea denentzat formula erabili.

Emakumezkoetan langabezia jaisten ari da baina oso gutxinaka. Industrian sinatzen diren lan kontratuei genero ikuspegitik begiratzen badiegu, oraindik emakumezkoen presentzia urria da oso. Langabetuen profilak ezagutzen ditugu eta ikusten genuen ikasketa maila baxuko emakume langabetuen egoera kronifikatzen doan heinean okertzen joaten dela. Langabetu kopuru osotik %39 oinarrizko ikasketak dituzten emakumezkoak dira. Horrek erakusten digu non jarri gure fokua. Hortik sortu zen Bidelan.

Zer da programak eskaintzen die-na?

Coaching prozesu batean hartu dute parte hamabost egunez. Esparru ezberdinetan erreferenteak diren pertsonen testigantzak ezagutzeko aukera ere izan dute, erabakiak hartzeko edo ikasketak bideratzeko orduan lagungarria suertatuko zaielako. Lehen sektorean, gizarte zerbitzuetan edo industrian egon daitezkeen lan aukerak jorratu dituzte, besteak beste.

Coachingak emakumezko horiek aktibatzen, animatzeko balio du. Animiakoki ahul aurkitzen dira eta psikologikoki indarra ematea da lehenengo laguntza. Lehenengo lana psikologikoa da eta ondoren dator aztertzea zer egin nahi duten eta dezaketen.

Noiz jarriko duzue martxan berri-ro?

Urte amaieran berriro egiteko asmoa dugu. Iaz proiektu pilotu gisa jarri genuen abian eta aurten jarraipena eman nahi izan diogu. 12 lagunek hartu dute parte oraingoan. Egoera horretan jende gehiago egon arren, kostatzen da jendea etortzea. Erraztasunak ematen saiatu gara orduetara euren beharretara egokituz, e.a.



“Lanbide Heziketa eta emakumea ez daude oso lotuta une honetan eta bide bat jorratzeko daukagu hor. Historikoki LH industriarekin lotu izan da eta industria gizonetzkoarekin”.



Iosune Irazabal

Ikaslan Gipuzkoa Lanbide Heziketako Institutu Publikoen Elkarteko presidentea

“Formakuntzak eskatzen duen ahalegina inbertsio bezala hartu behar da”

Zer esango zenieke goi mailako formakuntzarik ez duten eta langabezian dauden emakumeei?

Sarritan emakumeak aldi baterako lanak edo lan prekarioak hartzea lehenago erabakitzen du Lanbide Heziketako ziklo bat egitea baino. Nik ahalegin hori inbertsio gisa ikusteko esango nieke. Lanbide Heziketak onura bat du: oso epe motzean lanerako ahalbidetzen zaituen titulazio bat eskuratzen duzu. LHko ziklo batek 2000 orduko iraupena du, bi urte dira baina bigarren mailan, otsailean, praktiketara joaten dira ikasleak.

Esan daiteke Azkoitian eta Gipuzkoan egoera antzekoa dela?

Bai, errepikatu egiten da. LH, batez ere LH teknikoak, eta emakumea une honetan ez daude oso lotuta eta bide bat jorratzeko daukagu hor. Historikoki LH industriarekin lotu izan dugu beti eta industria gizonetzkoarekin. Gainera, lantegia zikintasunarekin.

El 39% del total de desempleados son mujeres con un bajo nivel de estudios. Además, la cronicación de la situación lleva irremediablemente a la desmotivación. Lo primero es ayudarles a levantar la cabeza y mostrarles claramente qué opciones tienen para acceder en el menor tiempo posible al mercado laboral. Con ese fin, Iraurgi Berritzen ha puesto en marcha Bidelan, un programa de orientación laboral dirigido expresamente a las mujeres con baja formación.

En un entorno en el que el 41% de los afiliados a la seguridad social corresponde al sector industrial, desde Iraurgi Berritzen e Izarraitz Lanbide Heziketa se quiere romper los estereotipos y atraer a las mujeres a la Formación Profesional. Coincide con el mensaje transmitido por la presidenta de Ikaslan Gipuzkoa, Iosune Irazabal, en el encuentro mantenido con las mujeres que han participado en el programa.

kin erlazionatu ohi dugu. Gaur egun ez da hori horrela, baina mezu hori ez da heldu oraindik gizartera. Este-reotipoak jarraitzen ditugu zer ikasi erabakitzeko orduan eta bada puskatzeko garaia. Baina lan asko dago egiteko. Eraldatzen joan behar dugu eta ohitura berriak hartzen.

Azken aldian, LHren aldeko karpaina nabarmena ari da egiten Eusko Jaurlaritza. Zer dela eta?

Enpresetan beharra dagoelako da.



Eduardo Sodupe

Izarraitz Lanbide Heziketako zuzendaria

“Erdi mailako ziklo bat egin ezin dutenentzat, Gaitasun Ziurtagiriak daude”

Lanbide Heziketan sarbidea ikasketak mailak ematen duela diozu.

Hala da, DBH gaindituta duenak egin dezake Erdi Mailako zikloa. Garai bateko oinarritzko ikasketak edo EGB deitzen zena duenak, aldiz, ezin du. Baina hor daude Gaitasun Profesionalaren Ziurtagiriak. 400-600 orduko iraupena izaten dute eta behintzat ogibidea ikasten duzu.

Datorren urtera begira, Gaitasun Ziurtagiriaren eskaintza zabaltzea da zuen asmoa, ezta?

Hori da. Iraurgi Berritzenekin batera, Eusko Jaurlaritzari eskatu diogu datorren ikasturteari begira Gaitasun Ziurtagiriak eskuratzeko balio duten ikastaro berriak baimentzeko. Ezagutzen dugu langabetuaren profila, generoa, adina, formakuntza... eta nahiko genuke espresuki ikastaro horiek langabezia daudenei zuzenduta egotea. Noski, ikusita bailaran industriarekiko dugun dependentzia, ba industria sektorearekin lotutakoak izango dira nagusiki. Kontua da belaunaldi arteko erreleboari erantzutea.

"Eusko Jaurlaritzari eskatu diogu Gaitasun Ziurtagiriak eskuratzeko balio duten ikastaro berriak baimentzeko datorren ikasturteari begira".



39%

del total de desempleados son mujeres.

41%

de los afiliados a la seguridad social corresponde al sector industrial.

BAILARAKO ERREALITATE SOZIOEKONOMIKOA EZAGUTU DUTE AZPEITIKO ETA AZKOITIKO IKASLEEK

Bailarako enpresek bilatzen dituzten profil eta kualifikazio mailak aztertuta, Iraurgi Berritzenen aterkipean, “Elkarrekin eraikitzen” proiektua jarri zen martxan orain bost urte ikasleen artean ekintzaitetasuna garatzeko xedez.

Azkoitiko Floreaga Salestar Ikastetxeak eta Azkoitia BHIK eta Azpeitiko Iraurgi Ikastetxeak, Ikasberri Azpeitiko Ikastolak eta Urola Azpeitia BHIK hartu dute parte aurtengo ikasturtean. Alegia, 9 irakaslek, 180 ikaslek eta 40 eragilek.

Ikaslea protagonista bihurtuta ikasketza prozesuan, erronkei aurre eginez, bailarako errealitate sozioekonomikoa hurbiletik ezagutzeko parada izan dute neska-mutilek.

ZIENTZIARA ETA TEKNOLOGIARA HURBILDUZ

Bigarren urtez ospatu da aurten Urola Erdiko Zientzia eta Teknologia azoka. Bertan eskualdeko ikastetxeek, Iraurgi Berritzenen gidaritzapean eta Elhuyar Fundazioak lagunduta, ikasturtean zehar garatutako sei proiektu aurkeztu dituzte. Ibaietako ekologia, kristalizazioa edota prototipogintza dira landutako zenbait proiektu. Eskualdeko 10 irakaslek eta 200 inguru gaztetxok hartu dute parte.

ANDRAMAIXEK GAINAN DITUGU. ZEIN DA FESTEI BEGIRA, HERRITARREI LUZATU NAHI DIEZUEN MEZUA?

EAJ-PNV

Azkoitia bizi eta osasuntsuaren aldeko apustua egin dugu fokua prebentzioan jarritz, ez festak gainera etortzen zaizkigunean, urte osoan zehar baizik. Eragile ezberdinekin hausnartu dugu egoera, gizarte osoarena den arazoari aurre nola egin aztertze-ko, esaterako, adin txiki-koen alkohol kontsumoa. Bereziki kezkatzen gaituen gaia da. Oraintxe, Udalak antolatuta, herriko ostalari-iei tailer bat eskaini zaie sentsibilizazioa lantzeko eta jarraibideak emateko, arriskuak saihesteko xedez.

Adin txikikoekin ezin da jolastu, nahiz eta helduon-gandik jasotzen dituzten erreferentziak, ereduak eta adibideak. Kontsumo arduratsua sustatzeko eta informazioa emateko, aurten ere jaietan postu bat jarriko da. Bigarren postu bat ere egongo da, azken hau indarkeria sexistaren inguruko informazio gunea izango da.

Nahitaezkoa da errespetuz jokatzeko eskatzea. Errespetua nor bere buruarekiko, lagunarekiko, ondokoekiko eta herritar guztiekiko. Baita herriarekiko eta guztionak diren espazio publikoekiko ere. Festak gozatzeko dira, baina festetan ez da dena libre. Askatasunak muga argiak ditu eta norbere askatasuna besteari hasten den puntuari amaitzen da.

Sen onarekin jokatu gero, disgusturik ez.

EH BILDU

Badatoz beste behin ere festak, eguneroko bizitzako egin beharrak, ahal bada, albo batera utzi eta festaz gozatzeko unea.

Festaz denok modu aske batean gozatzeko ordea errespetua eta elkarbizitza ezinbesteko oinarriak dira eta hori eskatu nahi diegu azkoitiarrei.

Errespetua denok festetan askatasunez gozatzeko, errespetua inork etxerako bidean beldurrik ez sentitzeko, errespetua inolako eraso matxista, xenofobo, homofobo edo antzekorik ez gertatzeko, errespetua bakoitzak nahi duenarekin harremantzeko eta festaz gozatzeko.

Hori lortzen badugu, elkarbizitza izango dugu eta denok izango dugu ondo pasatzeko aukera.

Jakin badakigu hau lortzeko bidean oraindik ere lan asko egiteko dagoela gaur egungo Azkoitian baina bide horretan aurrera egiten jarraitu behar dugu. Horregatik mota guztietako erasoan aurrean zero tolerantzia eskatzen diegu herritarrei, ez egin ez ikusiarena zuen inguruan zerbait gertatzen bada.

Horregatik gogoratu EZ beti EZ dela.

ONDO PASAU
ANDRAMAXEK

AZKOITIA BAI

Andramaixek datozela!!! Azkoitiar bezala emozionau eitten gaitube hitz hauek. Esanber batte harrotasun osukin inguruko festaik jatorrenetakuk dila, bertako jendie bezala.

Onezkero laburmetriak prestatzen aikoie batzuk, bestik kuadrilako kamiseta aukeratzen, lelengo aldiz plaza 18xen bazkaltzea jungoienak e izengoie,... seuru danak kriston ilusixukin.

Kanpotik datozenak e ondo hartuko ditteu, beti bezela, nahiz eta herritar-rrak izen gexenbat Andramaixetan. Nik beti bezelako festak izetie nahiko nuke, jatorrak, danak ondo pasatzeko morokuk, ondokue errespetaez,... eta hori lortzeko azkottiarrak gean bezela konportatzen bagea ezteu arazoik eukiko, herri inklusibue gealako eta ondo pasatzen dakiulako geure artin.

Eta besteik gabe ensaiatzen hasi berkou :

“Ama nahi dezunian jokaizu loterixe zergaitik, nahidegulako ONDO PASAU ONDO PASAU ANDRAMAIXEK!”

Ejenplue eman, beti bezela bestik errespetau eta ondo pasau Andramaixek. Hau dek emoixue!!!

PSE-EE

Jai zorientsuak opa dizkizuet Azkoitiar guztioi. Abuztuan, ekintzaz beteriko aste bat izango dugu, ospatzeko eta gozatzeko, eta animatu nahi zaituztet denoi Andramaixetan parte hartzera alaitasunez, eta beti gogoan izanik berdintasun eta errespetu balioak. Izan ere, balio horiek baititu ezaugarritzat herri honek, bizikidetzan bizitzen dakien herri honek.

Me gustaría desear a todas y todos los Azkoitiar-rras que pasen unas buenas fiestas. En agosto tendremos una semana llena de actividades para festejar y disfrutar los ‘Andramaixek’, y animo a todas y a todos a participar en ellas con alegría y teniendo siempre presente los valores de igualdad y respeto que caracterizan a nuestro pueblo, un pueblo que sabe convivir.

ONDO PASAU
ANDRAMAIXEK

Pausoak emanaz

PROTOCOLO PARA LA RESPUESTA INSTITUCIONAL ANTE LA VIOLENCIA SEXISTA

La respuesta ha de ser contundente, respetuosa y basada en el análisis individualizado de cada caso, blindada ante las presiones de la inmediatez, que no suponga un freno a la impunidad del agresor ni la revictimización.



Gipuzkoako udalerrietan indarkeria sexista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko I. Protokoloa onartu du Foru Aldundiak, udalerriekin landu ostean. Azkoitiak parte hartu du prozesuan eta beraz, bat egin du edukiarekin eta dokumentuak biltzen dituen jarraibideekin.

Protokoloaren helburuak dira, besteak beste, erantzun garbia eta efizientea ematea, erakundeen arteko koordinazioa optimizatuta, gaitzespena erakustea indarkeria sexista mota guztien aurrean, sentsibilizazioan laguntzea eta zero tolerantziaren kultura sendotzea edota edozein eraso sexistaren biktimari arreta ziurtatzea, zerbitzuak eta baliabideak direla medio.

Erantzun publikoa ematerakoan aintzat hartu beharreko irizpideen artean dago errespetuzko erantzun

na izatea. “Biktimek, jasotzen du dokumentuak sarritan, bere burua ez erakustera jotze hori biktimen gainean ezartzen den estigma sozialaren sintomatizat uler daiteke batetik eta, bestetik, norberaren babeserako neurritzat; horrenbestez, erakundeek errespetatu eta bermatu egingo dute hori. Eta garrantzitsua da horrela jokatzea zeren eta, alde batetik, berekin baitakar erantzun publiko, egoki eta proportzionala kasuen banakako analisisan oinarritzea, errespetu eta empatia arrazoi begi-bistakoen indarrez, eta bestetik erantzun horrek herritar guztientzako elementu hezitzaile bihurtu nahi baitu; beraz, berehalakotasunaren presioen aurrean blindatuta jardun behar da. Berehalakoa izan behar duu biktimari ematen zaion arreta; horrela, biktima eta beraren ingurua zaintzeak lehentasuna izango du”. Horrez gain, adierazpen

publikoa egiterakoan baloratu beharrekoa da horrek erasotzailearen in-punitatea murriztu edo brida deza-keen.

Halaber, berbiktimizazioa saihestea ezinbestekotzat jotzen da. “Indarkeria sexistaren sorburu estrukturala dela eta, sarritan, indarkeria sexista kasu bat denean, ez da behar bezala jarduten. Biktimak kuestionatu egiten dira, edo jasandako indarkeriaren arduradun bihurtzen ditugu. Eta fenomeno horren eraginez, maiz askotan biktimak errudun sentitzen dira. Horregatik, garrantzitsua da mezuetan gogoratzea indarkeriaren erantzukizuna indarkeria baliatzen dutenena dela, ez biktimena; eta saihestu egin behar da biktimak estigmatizatzen dituen mekanismorik martxan jartzea”.

ZORTZI SALTOKIK LORTU DUTE “LAGUNKOIAK GARA” ZIGILUA



Han obtenido el sello las tiendas de ropa Grieta, Karan y Andueza, los estudios de decoración Etxe Deko y Beatriz Pozo Dekorazioa, la herboristería Hazia, ETK Informatika, y Joaquín Isusquiza Zubizarreta (MAPFRE).



Ocho establecimientos han recibido el sello de “Somos amigables” impulsado por Azkoitia Lagunkoia. Previamente los comercios han participado en un programa en el que se les han facilitado prácticas de bajo o cero coste para que su comercio sea más amigable para sus clientes, adaptándolo a las necesidades de las personas mayores con el fin de que puedan seguir desarrollando su vida en el entorno habitual de la forma más autónoma posible.

Han obtenido el sello las tiendas de ropa Grieta, Karan y Andueza, los estudios de decoración Etxe Deko y Bea-

triz Pozo Dekorazioa, la herboristería Hazia, ETK Informatika, y Joaquín Isusquiza Zubizarreta (MAPFRE asegurauk).

Todos ellos han realizado un considerable esfuerzo por convertir su establecimiento en amigable. Y es que muchas personas mayores se encuentran con dificultades a la hora de visitar un establecimiento. Los comerciantes coinciden en que lo más importante es la actitud. Normalmente demandan atención personalizada y ayuda, lo cual contribuye a generar una relación de fidelidad y confianza entre ellos.

Para mejorar el servicio de atención a las personas mayores, los establecimientos que han sido reconocidos con el sello, han adoptado medidas como incrementar el tamaño de la letra utilizando como mínimo un cuerpo 16 en los carteles, adquirir lupas o gafas de visión aumentada para ofrecérselas a sus clientes en caso de ser necesario, colocar asientos para que puedan esperar sentados o hacer que puedan usar el servicio que habitualmente usan los empleados.

Alex Sardui, Gatibu taldeko abeslaria

«ESZENATOKIAK NEURE LEKUA EMAN DIT»

Uztailaren 21ean Azkoitiko plazan joko du Gatibuk, Udalak eta Um Blem Ble tabernarien elkarteak antolatuta. Aitzakia hori aprobetxatuz, Alex Sarduikin solasalditxoia izan dugu.

Duela bost urte jo zenuten Azkoitian. Bada bueltatzeko ordua. Zer moduzko plaza da gurea?

Ona, ona. Plaza ona.

“Aske Maitte, Aske Bizi” zuen zazpi-garren diskoa 2016an atera zenuten. Azken urteotan bi urtez behin atera duzue disko berria, beraz, aurten tokatzen da, ala?

Je, je, je... kalkulua horixe da, bai. Baina abestiak eduki arte ez dago diskorik. Ahalegina egingo dugu Durangoko Azokarako.

Oso ondo ohituak zaudete, arrakastaren olatuan beti. Maila eman behar horrek zenbaterainoko presioa eragiten du?

Aurreko lana hobetzeak ematen du karga. Karga norberarena da zeren ni, gu, hortik bizi gara.

Hemen musikatik bizitzeko kontzientziarik ez dagoela esan izan duzu...

Gauzak apurtxo bat aldatzen hasi dira. Jendeak ulertu du hau lan bat dela eta ondorioz, etekina edo hortik bizimodua ateratzea legala dela, beste aukera

"Jendeak ulertu du hau lan bat dela eta hortik bizimodua ateratzea beste aukera bat dela. Orain arte, ez da kontzientzia hori egon"

bat. Orain arte ez da kontzientzia hori egon. Ondo pasatzen dutenez beraiek, ba kitto, dena musu-truk. Hemendik kanpo hori ez da gertatzen. Baina apurka apurka aldatzen doa. Telebistan ikusi zaitugu baina tabernan eta kopistegi batean lan egin izan duzu. Bizkaiko Batzar Nagusietan batzarkide izatea zer den ere badakizu. Denetatik hartu ahal izan duzu zerbait?

Beti ikasten da denetatik. Azken batean, guk ez genuen uste musikatik biziko ginenik eta nik ez dut sekula lana egiteko arazorik izan.

Zure aurpegirik ezezagunena politikariarena izango da seguruenik. Aukera suertatu zitzaidan baina poli-

tikan ere, kanpotik ematen duena baino lan gehiago egiten da eta dena aldi berean ezin nuela egin ikusi nuen.

Gatibu Atlantikoaren beste aldean ere ibili da. AEBtan, Mexikon... zer gorputzaldirekin bueltatu izan zarete halakoetan?

Onak izan ohi dira irteera horiek. Aberragarriak taldearentzat. %100 taldearekin zaude eta sortzen dira abenturak eta istorioak. Jendea, batzuk euskaragatik etortzen dira, beste batzuk taldearengatik...

Zu abesten fraideekin hasi zinen. Ez da horrela?

Lehenago, lehenago hasi nintzen. Urtebete egon nintzen aita pasionisten ikastetxean. Gero koadrilakoak koroan sartu ginen.

Zer ematen dio Alex Sarduri eszenatokiak?

Lekua eman dit, bizitzan neure lekuan jartzen nau. Eta jendea gure kantak abesten ikustea zoragarria da.

Ze proiektu duzu orain esku artean? Ezer ez daukat momentuz. Udako kontzertuak. Eta gero gerokoak.

Andrea Pozo,
Silence taldeko abeslaria

"NIRE AMETSA IZAN DA PLAZAN JOTZEA BAINA SEKULAKO ERANTZUKIZUNA ERE BADA NIRETZAT"

Silence suena diferente. Andrea Pozo pone voz y letra a las canciones de una nueva generación musical que viene a romper moldes y, en un claro ejercicio de obediencia a Beethoven, a romper el silencio solo si es "para mejorarlo". Llevan algo más de un año ensayando en un garaje. Han demostrado mucho con su primera maqueta. Muchísimo. Ahora vienen a tocar



la fibra desde el escenario. Y van a comenzar a hacerlo como teloneros de Gatibu en su segundo directo. Acaban de grabar un single y este verano se meterán en un estudio para grabar su primer disco. Nos lo cuenta la cantante del grupo, artista y futura politóloga, Andrea Pozo. Y es que -dice- la política también es arte. "El arte del pensamiento".

Gazteek urrun sentitzen dute politika baina zu Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko gradua egiten ari zara Leioako campusean. Artista eta politologoa?

Jendea harritu egiten da, bai, baina niri izugarri gustatu zait, denetarik ikasten da, bizitzarako lagungarria dena. Zailtzan egon nintzen kazetaritza edo Politika Zientzia hartu eta azkenean, kazetaritzan ere jende asko dagoela eta, azken hau aukeratu nuen. Beldurrarekin hasi nintzen zeren gainerako ikaskideak jakitunagoak ikusten nituen eta nik Marx eta Maquiavelo irakurriak nituen baina asko gehiago ez.

Politika ere artea dela diozu.

Hala da. Pentsamenduaren artea. Horrekin lotu izan dut nik beti politika, filosofiarekin ere bai noski, baina politika praktikoagoa eta errealagoa ikusten dut. Niri ikuspegia zabaltzen lagundu dit eta neu ari naiz ikuspuntu berriak sortzen eta hori artea da. Sortzailea eta artistikoa dela oso iruditzen zait. Zure pentsamendua garatzen duzu. Politologoak aztertu egiten du.

Egia da ez naizela telebistan ikusten du-

gun politika horretaz ari. Hori dialektika da, atzean beste gauza asko daude. Baina politika oinarrizkoa da eta txikitatik eskolan eman beharko litzateke, ba historia ematen den moduan.

Silence-ko abeslari gisa ezagutu arretetik, antzerki musikala egiten ikusi zaitugu. Jarraitzen duzu?

Bai. "Shine Again" en ostean, beste musikal batekin gabiltza. Kabaret moduko bat. Pentsatzen dut datorren urtean eszenaratu dugula zeren ez da hilabete batzuetako lana, urte oso bat kentzen digu baina antzeko ezer ez dagoenez, uste dut jendeak gustura hartzen duela.

Eta Silence taldearen loraldia bete-betean. Zergatik "Silence"?

Hasiera batean "The Satellites" ginen baina talde asko zeudela izen horrekin eta guztioi gustatzen zitzaigunez "Silence", ba horrekin geratu ginen, gainera metaforak egiteko laguntzen du.

Metaforak aipatu dituzu. Ukitu poetikoa nabarmentzen da zuen Facebook-eko idatzietan ere. Euskaraz, gaztelerez eta ingelesez gainera. Nor da maisua?

Jon Kustodiok eramaten du gure Face-

booka eta izugarri gustatzen zaigu denoi nola idazten duen. Asko lantzen ditu testuak.

Djuniet Astigarragak elkartu zintuzten. Entseetzen hasi eta gerora pentsatu zenuten Gaztea Maketa Lehiaketara aurkeztea edo?

Bai. Djuniet hard-rock eta punk estiloko taldeetan ibili izan da. Indie musika egin nahi zuelako elkartu gintuen. Intentzioa zen gure inguruan indie motako musika egitea zeren gehienak betikoak dira, pop rock inguruan dabilta eta hortik atera egin nahi zuten. Ez daukagu estilo finkorik. Abesti poperoa egin dezakegu, dark bat edo punkeroa.

Maketa bat grabatzea erabaki genuen eta uste dut Julenek -Hidalgo- aipatu zuela lehiaketarena. Esperantza handiegirik gabe bidali genuen lehiaketara, batik bat, ikusten genuelako bazirela behin baino gehiagotan aurkeztutako taldeak eta inoiz hartu ez zituztenak. Motibazio handia izan da.

Eta danba! Entzuleen saria! Singlea ere grabatu berri duzue euskaraz.

Bai, izugarri gustatzen zait abestia eta asmoa da udan diskoa grabatzea estu-



Molinaren kantak... Gogoratzen naiz hiruzpalau urterekin amari esan niola Bizkargi Musika Eskolara joan nahi nuela eta huraxe izan zen urteetan nire bigarren etxea. Denbora asko igaro nuen Musika Eskolan eta oso oroitzapen ona dut. Zortzi urtez pianoa ikasi nuen eta eskolako orkestran jotzen nuen. Harmonia eta konposizioan ere bi urte egin nituen. Gero Bilbora ikastera joateko utzi nuen eta gitarra neure kontura ikasi nuen.

Letra gehienak zureak dira. Zer nolako garrantzia ematen diezue taldean letrei, mezuei?

Jose Marik -Unanue- eta Kustok -Jon Kustodio- ere idazten dituzte letrak. Dena denon artean egitea gustatzen zaigu. Nik garrantzia handia ematen diet. Neuri gustatzen zaizkidan abestien letrak oso sakonak dira, transmititzen dutenak eta identifikatuta sentiarazten zaituztenak. Nire kasuan, letrak abstraktuak dira, hitz egiterakoan ateratzen ez diren sentimendu horiez aritzea gustatzen zait, baina gaizki nagoenean jartzen naiz musika egiten eta beraz, zaila da abesti alaiak ateratzea.

Mezu aldetik, aldarrikapenak egiteko bide oso ona dela musika uste dut eta beharrezkoa dela. Emakumezkoen ahalduntzea da gaietako bat. Aldarrikatzea ez da bakarrik manifestazioetara joatea.

Nola garatzen duzue sormen prozesua?

Entseguetara ez gara ezer gabe joaten. Bakoitzak etxetik zerbait ematen du eta hori da abiapuntua. Nire kasua da, agian, etxean eta bakarka gehien lantzen dena, letrak sortzearena.

Maketaren arrakasta ikusita, diskoa ateratzeak beldurrik ematen dizue publikoaren erantzunari begira?

Beldurrik ez. Gure esentzia ez da asko aldatuko. Gure musika batzuei asko gustatuko zaie eta beste batzuei ez, baina gustatzen zaien horiek leialak izango dira. Gustatu edo ez, niri ilusioa egiten dit musika ezberdina egitea. Gainera, Azkoitian musika taldeetan denak mutilak dira eta nesken ahotsak falta dira musika arloan.

Zigilu diskografiko batekin sinatzeak badu esentzia galtzeko arriskua?

Niri emango zidan beldurra zeren bi aldean interesak sartzen dira hor jokoan baina azkenean konfiantza jartzen baduzu... ez dugu horrelako ezer planteatu. Orain zuzenekoak jo eta eskarmen-tua hartu behar dugu.

dioan. Ingelesez abestea gustatzen zaigu duen sonoritateagatik baina euskara da gure hizkuntza eta euskaraz ere egitea pentsatu genuen. Arraroa egingo zitzaidala uste nuen euskaraz abestea baina ingelesez erosoago sentitu arren, gustatu zait.

Udalak eta tabernarien elkarteak antolatuta, Azkoitiko plazan eskainiko duzuen kontzertua zuen bigarren zuzeneko da. Ze gorputzaldi duzue?

Beti izan da nire ametsa Azkoitiko plazan jotzea. Nire herrian. Talde mordoia pasa dira bertatik eta nire ilusioa plazan eta Matadeixen jotzea da. Gainera, Gatiburekin. Niretzat sekulako erantzukizuna da. Jende asko etorriko da Gatibu ikustera eta gu hor... oraindik jendeak ez gaitu ezagutzen eta sekulako aukera da, erakusleho bat guretzat bai geure burua ezagutarazteko, bai kontzertuak lortzen joateko.

Bada musikarekiko sentitzen duzun pasioa kutsatu dizun norbait?

Ba ez. Familian ez dut musikaririk. Bueno, nire familia Extremadurakoa da eta nire aitona bere garaian tabernetan-eta, abesten zuen, koplak, Antonio



"Nik garrantzia handia ematen diet letrei. Hitz egiterakoan ateratzen ez diren sentimendu horiez aritzea gustatzen zait baina gaizki nagoenean egin ohi dut musika eta beraz, zaila da abesti alaiak ateratzea".

AZKOITIA ENTRE LAS DIEZ CIUDADES EN LAS QUE SE CELEBRARÁ EL CICLO NATURGY DE CINE ITINERANTE

El 20 de julio, viernes, a las 22.00h, se proyectará la película *Toc Toc* en los Frontones Oteiza con la presencia de su director Vicente Villanueva. La iniciativa, impulsada conjuntamente por Naturgy y la Fundación Academia de Cine, hará parada en diez ciudades para acercar el mejor cine de 2017 y 2018.

Azkoitia da konpainia energetikoak eta Zine Akademiak 2018ko Udako Naturgy Zine Ziklo Ibiltaria ospatzeko hautatutako hamar herrietako bat. Ekimenari esker, uztailaren 20an, ostirala, 22:00etan, Oteiza Frontoietan Vicente Villanuevak zuzenduriko "Toc Toc" filma proiektatuko da. Aire libreko hitzordua izango da eta bertan izango da Vicente Villanueva zuzendaria, besteak beste, "Nacida para ganar" edo "Lo contrario al amor" filmeen egilea. "Toc Toc" pelikulako aktoreen artean daude Rossy de Palma edota Paco León.

Proiektzioaren ostean, bertaratzen direnek Vicente Villanueva zuzendariarekin solasaldiaz gozatzeko parada izango dute.

"Ziklo honek -diote Zine Akademiatik- estatuko zinerik onenaz gozatzeko parada eskaintzen du pantaila handian eta doan. 12. edizioa da oraingoa eta Cazorla, Azkoitia, Elche, Torrijos, Jerez de los Caballeros, La Muela, Pontareas, Gijón, Cartaya eta Sabadell herri edo hirietatik igaro-

ko da beste behin, zazpigarren artea hainbat txokotara zabalduz".

Zikloarekin bidaiatuko duten tituluak, berriz, dira *Abracadabra*, *Toc toc* eta *La llamada* komediak, *Oro* filme historikoa, *Tadeo Jones 2. El secreto del Rey Midas* animazioko pelikula eta Berlinale jaialdian opera primaren saria eskuratu zuen *Estiu 1993*.

Ibilbide honetan zuzendari eta protagonistek ere parte hartuko dute eta ikuslegoarekin solasteko aukera aprobetxatuko dute zinemazaleekin errodajeetako bitxikeria eta pasadizoak partekatuz.

Pablo Berger edo **Vicente Villanueva** zuzendariak, edota **Juan José Ballesta**, **Isabel Rocatti** eta **Marisol Aznar** aktoreak dira parte hartuko dutenak, besteak beste.

Ciclo Zine Ziklo Ibiltariak 52.000 ikusle batu ditu 2013tik eta 85 hirietatik igaro da. Uda honetan bueltan da 32. Goya sarietararako izendaturiko fimeak nagusi izan diren aurreko edizioari jarraipena emanaz.



20
julio

Toc Toc

Azkoitia (Gipuzkoa)
22:00 horas
Frontones Jorge Oteiza

Ciclo
Naturgy
de Cine
Itinerante

Verano 2018

Presentada por
Vicente Villanueva

¡Entrada gratuita!

Ven a disfrutar del encuentro
con el director de la película.

www.experience.naturgy.com
@NaturgyEsp
@Academiadecine
#CicloNaturgy

Naturgy



FUNDACIÓN
ACADEMIA DE CINE

*Obras de arte de los artistas participantes

